

## Auñemendi mendiak XIX. mendeko euskal narratiban

ANA TOLEDO LEZETA

Deustuko Unibertsitatea. Euskaltzaindia

Auñemendi mendietan zein eratako gertaerak kokatu zituzten XIX. mendeko kontalariek atzematea du xede honako azterlan honek. Honenbestez, euskaraz argitara emandako lehen kontaketek Auñemendi mendiei egindako tartearen nolakotasuna izango du jorragai.

Argitara emandako lehen kontaketak, bai, zeren eta aurkitu berri den (2004) Juan Perez de Lazarragaren eskuizkribuak kontaketa XVI. mendean bertan landu zela dokumentatzen badu ere, inprimategitik igarotzera ez zen iritsi.

Kontaktetaren alorretik heldu diren dokumentuek erakusten dutena zera da, Lazarragaren artzain eleberritik XIX. mende arteko jauzia egin behar dela idatziz emaniko hurrengo kontaketekin topo egiteko. XIX. mendean hasten da euskal prosa fikzioari atak irekitzen etenik izango ez duen modu batean. Gaur gaurkoz, Lazarragaren kontaketa harri bitxi bakan bezala gelditzen da XVI. mendean, euskal literaturaren sorreran bertan, lirikarekin batera narratiba ere lantzen hasi zirela agerian jarritz. Haatik, gaur ezagutzen den dokumentazioaren arabera, ez zuen jarraipenik izan: Errenazimendutik Erromantizismo-rainoko jauzia egin beharko da hurrengo kontaketekin topo egiteko. Tartean hutsunea.

Hiru mendetako isiltasunaren ondotik, berriro heltzen zaionean kontaktari, mugimendu erromantikoaren hauspoak bizkortuta dator. Hauspo horren eragina, kontaktetaren alorrean lantzen diren testu-tipoetan bertan somatzen da: legenda eta eleberri historikoa lekuko.

Euskal legendek Donostiako euskal festak dituzte sorleku; izan ere, festa horiek izan ziren beren literatur sariketaren oinarrietan legendarik hoberenarentzako saria agindu zuten lehenak. Festok ospatzen hasi ziren lehen urtean bertan, 1879an, “kondairen baten ezagualde labur bat, irakurgai bat, edo gure

oitura oroitzagarraren baten gañean ongien izkribatzen duenari”<sup>1</sup> saria eskaintzen zaio. Hurrengo urtetik aurrera, deialdia euskaraz eta gazteleraz egingo da. Gaztelerara itzultzean “irakurgai” hitza “tradición ó leyenda” legez ematen dute.

Euskal festetako literatur sariketetan “irakurgai” sailean irabazle izateagatik edo “Ohorezko Aipamena” jasotzeagatik, hogeitau eta bosten bat legenda argitaratu ziren. Hogeitau eta bost legenda horietako bik kontatzen dituzten jazoerek lehen aldi urruneko Auñemendi mendiak dituzte gertaera-leku.

## 1. Auñemendi: Euskal Herriaren sorleku

1882an Donostiako euskal festetan “Ohorezko Aipamena” eramane zuena Karmelo Etxegararen “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera” izan zen.

Errenazimenduan barrena nork bere komunitatearen antzinatasuna eta bikaintasuna erakutsi nahia nabarmena izan zen; izan ere, nork bere komunitatea besteen komunitateen gaineratik jarri nahi du eta horretarako ahalik eta antzinaterik duinenaz hornitzen saiatzen da<sup>2</sup>. Errenazimenduko historiografiaren lana izana zen antzinate bikain hori eraikitzea<sup>3</sup>. Euskal historiografia erdaraz garatu zen: Martínez de Zaldibia, Garibay, Ibarguien-Cachopin... lekuko.

Gauza jakina da Errenazimenduan zehar garatzen den historia ez dela baliatzen metodo zehatz eta zorrotzez. Historia sorkuntza artistikotik zien-

<sup>1</sup> *Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguina orretarako artu diran prestamen, eta sarizatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitzua*, Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostia, 1879, 6. or.

<sup>2</sup> “A medida que avanza el Renacimiento, la erudición de los hombres de letras se orienta hacia el estudio de la antigüedad de cada pueblo, y este pueblo, cada vez más, coincide en ser aquella comunidad o ‘patria’ a que pertenece el autor. (...). El interés del investigador por sus compatriotas, que deriva de una solidaridad fundamental con el grupo de sus contemporáneos, impulsa a querer colocar a éstos por delante de todos los demás, y para elevarlos de tal manera se les construye el pedestal de una antigüedad propia, que se pretende tan ilustre o más que la de latinos y griegos”. Maravall, José Antonio, 1986, *Antiguos y Modernos*, Alianza Editorial, Madrid, 407. or.

<sup>3</sup> “Una pasión prenatal, con todo lo que ésta tiene de preferencia por la comunidad presente a la que se pertenece, impulsa una historiografía que se desarrolla muy tempranamente en España y en Francia, empeñado en construir todo un remoto pasado, cuya antigüedad y grandeza sea el fundamento sobre el cual se levante la superioridad del grupo actual, al que políticamente se está vinculado”. Maravall, José Antonio, 1986, 415. or.

tziatik baino hurbilago dago: estiloa, kontatzeko modua, kontatzen dena bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da. Denborak aurrera egin ahala historia zorrotasunean eta zehaztasunean irabazten joango da, sorkuntza artistiko izatetik urrutiratuz.

Bestalde, orain, XIX. mendean, Erromantizismoaren magalean, jorratzen da fikzioa eta historia nahastea gogoko duen sorkuntza artistikorik: legenda eta eleberri historikoa adierazpen modu aproposak bihurtzen dira horretarako. Nahiz eta inork benetan gertatutakotzat ez jo, historia eta fikzioaren artean kokatzen da legenda<sup>4</sup>. Eleberri historikoa, berriz, mugatzen gaitza den arren, sorkuntza literariorako gertaera edo pertsonaia historikoren bat abiapuntutzat hartzen duenari dei dakiok.

Gauzak honela, mugimendu erromantikoak landuko dituen legenda eta eleberri historikoa Euskal Herriaren lehen aldia euskaldun bikainez hornitzeko bitarteko aproposak ziren. Antzinako buruzagien balentrien berri emateko garai bete-betea zetorren berriro Erromantizismoarekin eta, nola legenda hala eleberri historikoa, bide egokiak. Aitzondo, Osiñalde, Lekobide, Otzoal, Utxin-Tamaio, Begaiñ-Arrakill, Lartaun, Zara... euskal agintari eta handikiek egingo dute agerrera legenda desberdinetan. Inbaditzaileen erasoer aurre egin zieten buruzagiak dira. Aurre egin eta, garaile atera zirenak. Askatasunaren zaintzaile erostezinak.

“Ni eta nere guraso eta aurrekoak beti bizi izan gera uztarririk gabe mundua mundu danetik, eta nik, era berean, nai det ill”<sup>5</sup> aldarrikatzen du Begaiñ-Arrakill-ek, Cesar Augusto Erromako Enperadorearen mandatariak egindako eskarien aurrean.

“Uztarririk gabe mundua mundu danetik” badio Arturo Kanpion-ek “Denbora antxiñakoen ondo-esanak” (1881) legendara eramandako Begaiñ-Arrakill euskal agintariak, Karmelo Etxegarairen “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera” legendak<sup>6</sup> helduko dio “mundua mundu danetik” horren antzinatasuna ezartzeari.

<sup>4</sup> “La leyenda está entre la historia y la ficción. Nadie la da por cierta. Aun quienes creen en ella no se atreven a probar su veracidad”. Anderson Imbert, Enrique, 1979, *Teoría y técnica del cuento*, Ediciones Marymar, Buenos Aires, 41. or.

<sup>5</sup> KANPION, Arturo, “Denbora antxiñakoen ondo-esanak”, Toledo, Ana Ma (Ed.), 1990, *Leindak (1879-1891)*, Etor, Donostia, 126. or.

<sup>6</sup> Aitorren legendaren sortzailea, jakina denez, Agustin Xaho zuberotarra da: *Aitor. Légende Cantabre* (1843). Xahok eraikitako pertsonaia beste idazle batzuentzat ere erakargarri izan zen, hala nola, Francisco Navarro Villoslada nafararentzat, honen *Amaya o los vascos en el siglo*

Aitor da euskaldunen “Aitalenena”, berak sortu baitzuen Euskal Herria. Honen aurrekoak Ararateko mendietan bizi ziren. Egun batez, beren bihoitzeko deiadarrari erantzunez, mendi horietatik atera egin ziren Mendebaldeko lurrak jendeztatzen. Lehenbizi Kaukasopean gelditu ziren. Luzaroan zorian-tsu bizi izan ostean, Aitorrek auzokide zituzten zeltarren gurariak somatzen ditu eta zeltarrokin gudetan ibiltzearen gainetik bakean bizi izatea jarritz, bere seme eta ahaideei dendak altxa eta beste lur batzuen bila abiatzea proposatzen die. Auñemendi mendietako tontorrak ikustean amaituko du bidaia. Hona seme eta ahaideei Aitorrek esandakoa bidaia bukatzeko onean:

—Aurrera, mutillak! —esan zuen, gerenganatu ditzagun mendi oek, eta ez gaitean irten beñere beren artean dauden ibarretatik. Gizonak bizi bear du bere obiaren ondoan eta Auñemendian dago Aitor-en ezurrak estaliko dituen orubea<sup>7</sup>.

Semeek zazpi zatitan banatu zituzten mendi horien mendebaldeko lurrak eta zati horietako bat bereganatu zuen bakoitzak. Ahaideentzat gelditu ziren mendikatearen gainontzeko lurraldeak, baina, hauek, atsedean hartu ondoren, nahiago izan zuten hego alderantz jarraitzea. Aitor eta honen semeen aukera, ordea, jaberik gabeko mendi horietan gelditzea da. Gisa honetan, ibilaldiari amaiera eman eta, denden lekuan txabolak altxatuz, nekazaritzari eta abeltzaintzari heldu zioten.

Etxegaraiak Aitorren “abenturaren” kontaketa biltzen du arreta. Horregatik, lekua edo denbora, adibidez, oso gutxi karakterizatzen ditu. Abentura horren kontaketa honako ezaugarri hauek atxikitzen zaizkie Auñemendi mendiei:

- inoiz inork zapaldu gabeak Aitor etorri arte
- aberastasun handirik gabekoak
- Aitorren hilobia
- Aitorrek utzitako herentzia

---

VIIIk (1879) erakusten duenez, baina erdararen batean zebilen pertsonaia horren berri euskaraz ematen lehena Karmelo Etxegarai zumaiarra izan zen. Dena den, Etxegaraien “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera” Navarro Villosladaren eleberriko Amagoia pertsonaiak hiltete gau batean arparen laguntzarekin errezitatutako kontaketa baten itzulpena da, itzulpen libre samarra izanagatik. Ik. Navarro Villoslada, Francisco, 1976, *Amaya o los vascos en el siglo VIII*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 131-132. or.

<sup>7</sup> Etxegarai, Karmelo, “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera”, Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 152. or.

Inor ez zen bizi Auñemendi mendietan Aitor etorri arte. Beraz, Aitor ez da inbaditzailea, baizik eta jendeztatu gabeko lurralde bat jendeztatzen duena.

Aitor zoriontsu bizi zen Kaukasopean. Gizakiaren grina batek egingo du agerrera, ordea, eta beste behin ibiltari bihurtzera behartu Aitor. Norberak daukanarekin konformatzen ez eta, auzokoak duena ere nahi izateak eragindako liskarrak dira berriro bideari heltzea gomendatzen diotenak. Zeltarrak izan ziren Aitorren seme eta ahaideen uztak eta abere-taldeak gura zituztelako lapurretara jo zutenak. Egoera honek sorrarazitako bake-faltak Kaukasopeko “lur ugaritsu eta loretokiak” bertan behera utzi eta lurralde berri bat bilatzera bultzatzen du Aitor. Kaukasopea, “Auñemendipea” baino aberatsagoa zen; aberastasunik ez izatea dute bereizgarri Auñemendi mendiek. Horregatik, hain juxtu, ez ditu asetzen Aitorren ahaideak eta, berriro ere, bidaiari bihurtuko ditu: “goazen eguerdi aldeko lur ugaritsuak menpetutzera” (152. or.). Oraingoan, haatik, Aitor ez doa bere ahaideekin batera, lur “ugaritsuetan” arriskuak atzematen dituelako. Hala aitortzen die semeei:

Nai dezute izan aberats, iñoren mendean egoteko? Jarraitu berei; zabaldu zaitzete landa loretsu oetan. Nai dezute izan lokabe, naiz mundu gutzia zuekgaz aztu? Geldi zaitzete mendian (153. or.).

Kaukasopeko lur aberatsetan ez zegoen bakerik eta, bakea lehenetsiz aberastasanaren aurrean, beste lurralde baten bila abiatu zen. Orain, aberastasuna besteren menpe egoteko arriskuarekin uztartzen du. Aberastasanak besteen gutzia aseezina erakartzen du eta aberastasun horien jabetza eskuratzera bultzatzen. Auñemendi mendiak aberatsak ez direnez, aske bizi ahal izango dira. Azken batez, Aitorren balore-sisteman “lokabe” izatea aberats izatearen aurretikoa da. Horra hor bizilekua eta hilobia hautatzeko arrazoia:

Gizonak bizi bear du bere obiaren ondoan eta Auñemendian dago Aitor-en ezurrak estaliko dituen orubea (152. or.).

Bizileku eta hilobi ez ezik, baita ondorengoei utzitako ondare ere:

Ekarri ditudan aberastasanak, lurpean daude; bakarrik laga nai dizutet nere izen onraduna, ta arkaitz arte hauek, beretan lan eginaz, zorionekoak izan zaitzeten (154. or.).

Honela bada, Auñemendi mendiak Euskal Herriaren sorleku lege itxurazten dira. Mendikatearen mendebaldea eraiki zuten bizileku. Ondoko lurrez jabetu ziren Aitorren ahaideak, lurrok laga egin zituztenez hego alderantz joa-

teko, mendikatearen mendebaldea da bakarrik Ararateko mendietatik abiatu zirenen ondorengoena. Bertan dago Aitor Aitalehenaren hilobia eta ondorengoentzat utzi zuen herentzia: harkaitz artea bertan lan egiteko. Ez dago aberastasunik eta horregatik, hain zuzen ere, inbaditzailek erakartzeko arriskurik gabe, aske biziko dira.

## 2. Auñemendi: menderakaitzen bizileku

Aitorren usteak, ordea, ez dira erabat beteko; izan ere, honek semeei iragarri zien arren, “Nai dezute izan lokabe, naiz mundu guztia zuekgaz aztu? Geldi zaitezte mendian” (153. or.), mendi horiek menperatzera etorriko dira. Hego aldeko lurak bezain emankorrak ez izanagatik, menperatzaileen desioa erakarriko dute. Haatik, nahien eremua gairatzerik ez du izango menperatzaileen ahaleginak, auñemenditarrak menderakaitzak baitira. “Lokabe” izanaz jarraituko dute. Dirudenez, Aitorrek “lokabe” izateari ematen zion balioa bere ondorengogan txertatzea lortu du. Hainbat legendetan kontaturiko istorioek erakutsiko dute Aitalehenaren ildo berari jarraitzen diotela honen ondorengoek. Esaterako, Pelaiori, Kantabriako dukeari, gisa honetan adierazten zaio euskaldunen eskaria: “guk ez degu deus ere eskatzen, ezpada pakean mendi santu oetan, gure fuero ta oitura onakin bizitzeko baimendua”<sup>8</sup>.

Azken batez, xvi. mendeko historiagileengan, erdaraz idatzi zuten Errenazimenduko historiagileengan (Juan Martinez de Zaldibia, Esteban de Garibay, Iburgüen-Cachopin...) agertzen den eta, gerora ere, jarraitzailek izango duen<sup>9</sup> “vascocantabrismoaren” ikuspegiari eusten diote legendagile hauek. Historiagileon arabera erromatarrek ez zuten lortu “vascocantabro”ak menperatzerik. Erromatarrek egin zuten ahaleginik “vascocantabroak” menpean hartzeko, baina, hauek, gogor aurre eginaz, ahalegin horiek zapuztu zituzten. Hala, menperagaitzak izateagatik, erromanizatuak izatea saihestu zuten. Hortik dator beren “antzinatasuna” eta “garbitasuna”.

Auñemendi mendiak eta, oro har, Kantabriako mendiak menderakaitzen bizileku dira. Euskaldunak menderakaitzak dira eta, bereziki, mendiak dituzte guda-leku eroso. Trebetasun aparta erakusten dute mendian. Esaterako, Kar-

<sup>8</sup> Hala zioen Arturo Kanpionek “Agintza” legendan sortutako Aitor pertsonaiak. Ik. Kanpion, Arturo, “Agintza”, Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 146. or.

<sup>9</sup> Larramendirengan, adibidez. Ik. Larramendi, Manuel de, 1736, “Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria”, Madrid.

melo Etxegarairen “Andeka” (1883) legendako kontalariak dioenez, 711. urtean, “Bi edo iru eunki baziran, Euskaldunak, Españaiko nagusi ziran Godoen kontra gerran ari zirala. Eziñ bukatu zan gerra gogor ura, zergatik, baldiñ Euskaldunak garaituak izaten baziran noiz edo noiz, zelai-landetara jatxitzen ziranean, etzan munduan beren mendi goietan aek azpiratuko zituen indarrak”<sup>10</sup>. Mendian garaitezinak dira.

Antzeko zerbait dio Erromako enperadore Octavio Augustok euskaldunengana bidalitako mandatariak, Franziska Ignazia Arruekoaren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendak jasotzen duenez: “Zuek, mendi oiek dirala bide eta bazter oietako berri ongi dakizutelako, alde oetan azpiratzen gaituzute, baña benturatuko ziñateke lur zelai edo ordekan gurekin eskuetaratzera?”<sup>11</sup>.

Mendebaldeko Pirinio mendien eta mendikate Kantabriarraren arteko euskal mendiak behin eta berriz bihurtuko dira gerra-leku. Bada Hernio mendia gertaera-leku duen erromatarren aurkako borrokarik<sup>12</sup>, baita beste mendirik ere: Donostiako euskal festetan 1881ean lehen saria jaso zuen legendan, kasu, “Baña *etxeko-jauna, bere atearen aurrean zutik* ernai dago, *iriki ditu bellarriak*, eta zorrozten aizkor eta geziak Gorbeako aitz eta arrietan otsoak iltzeko. Ez dira, ordea, otsoak eldu diranak, ezpada Erromatarrak” kantatuko du Aitorren alabak<sup>13</sup>.

Jakina, bada “mendi Pirinioetan” egindako borrokarik ere. Franzisko Lopez Alen-ek “Antziñako nafar-mendiko oroitz bat” (1890) legendan, 790. urte inguruko gertaera baten berri ematen du Maria pertsonaiaren ahotsaz baliatuz. Mariak aitonak kontatzen zien kondaira birkontatzen du. Aitona hori sendo zegoela oraindik, “pentsa omen zuten Erroma aldeko erdaldun gudari indar beteak, Españaia etorri eta menderatzia, zer uste dezute?... Euskaldun erri guztiya...”<sup>14</sup>. Mariaren aitona izan zen “Karlo-Manen jendea” Altabizkarreko parera heltzean “Aurrera mutillak” deiadarra egin zuena. Euskaldunak atera ziren garaile: “Erromatarrak euskaldun lurrera alderatu ziran,

<sup>10</sup> Etxegarai, Karmelo, “Andeka”, Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 156. or.

<sup>11</sup> Arrueko, Franziska Ignazia, “Euskaldunen bikaiñtasuna”, Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 70. or. Ohorezko aipamena jaso zuen 1886ko Donostiako euskal festetan.

<sup>12</sup> 1882an Donostiako euskal festetara Gregorio Arruek “Aspaldi aietako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste” goiburupean aurkeztu zuen legenda, kasu. Ik. Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 81-91 or.

<sup>13</sup> Kanpion, Arturo, “Denbora antxiñakoen ondo-esanak”, Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 131. or.

<sup>14</sup> Lopez Alen, Franzisko, “Antziñako nafar-mendiko oroitz bat”, Toledo, Ana M<sup>a</sup> (Ed.), 1990, 152. or.

bañan sartu ziranak etziran gehiago biurtu beren jaiot-errira” (249. or.). Dirudienez, sona handiko gertaera izan zen. Kontalariak dioenez, ikasgai bezala ere balio izan zuen:

Ordu ezkerro, lurraren jiran bizi dan iñori, ez omen zaio gogora etorri Euskaldunen erria menderatzea (249. or.).

Honela bada, Antzinate distiratsua jabe izanaz aurkezten dituzte legendek euskal mendiak: euskaldunek askatasuna gorde nahi izateak, hainbat gesta epikoren eszena-leku bihurtzen ditu. Aitorren ondorengoak protagonizaturiko gestak dira, “Aitalenena”k heriotzako orduan esandakoari eutsiz: “Nai dezute izan lokabe, naiz mundu guztia zuekgaz aztu? Geldi zaitezte mendian” (153. or.). Euskaldun menderakaitzen bizileku dira euskal mendiak. Mendi horietan aparteko distira du Auñemendik, bertan sortu zuelako Euskal Herria Aitorrek eta gero, honen ondorengoek oinak jartzen ere ez dietelako utzi menperatzera etorri direnei.

### 3. Auñemendi: jentilen azken gotorleku

Altabizkarreko gertaerak baino lehenago ere, Auñemendi mendietako bizilagunek erakutsia zuten zenbateraino maite zuten askatasuna. Txomin Agirrek idatzitako lehen eleberriko, *Auñemendiko Lorea* (1898) eleberririkoa, Andre Luzia pertsonaiak “Eun urte oneetan guda bat amaitu orduko beste bat asi oi daroagu, or beeko prankotarrakaz, gu menderatu eta euren legeen azpian ipiñi gura gaituelako”<sup>15</sup> esango dio bere alaba Riktrudisi, xehe-tasun gehiagorekin gerra horien berri eman aurretik. Kontatzen den istorioaren orain aldian, 638. urte inguruan, beste gerra bat pizteko zorian dago frankotar horiekin. Alabaina, gerra berri honen jatorria ez dago, aurrekoak bezala, frankotarrek auñemenditarren askatasuna eraso izanean, fede-mailako auzi batean baino.

Portunek, Ozinbeltz jauregiko Otxoa agintariaren seme nagusiak, “guzurtiak dirala prankotarrak eta guzurra euren siniztea” (42. or.) aurpegiaratu dio Adalbaldo frankotar dukeari. Gertaera honen ondotik, Otxoaren deiari erantzunez, euskal agintari asko bilduko da Ozinbeltzen, egoera aztertzeko: frankotarren aurkako gerra berri bat hasteko motiborik ez dagoela erabakiko

<sup>15</sup> Agirre, Txomin, 1998, *Auñemendiko Lorea*, Ostoa, Donostia, Ana Toledok prestatutako edizioa, 8. or.



dute. Euskal agintari kristauen ikuspegia nagusitzen da, gerra berri bati ekiteko prest zeuden “fede zarrekoen” jarrerari gailenduz.

Fedeak bereizten ditu euskaldunak elkarrengandik. Auñemendin nabarmentzen da banaketa hori, Riktrudisen esanaren arabera,

Auñemendiko euskaldunik geienak fede-gabeak egozan oraindiño. Ez alan beste euskaldunak, Iaungoikoari milla esker. Naparroako erribera aldean, berak, Riktrudisek entzutea ebanez, Iesusen barri onak erakutsi zituan Done Paulo Ientientzat Bialduak, kristiandadeko lenengo urteetan; Done Saturninok Iruñan, irugarrengo eunkidan; Done Bizentek Dax-en eunkida orretan bertan, baiña aretakorik etzan mendietaraiño eldu, eta zerbaiten susmo eta zurrumurrua baiño asko gehiago etzan iakin orduan baso-erri bazterretan. Geroago, pixkaka, pixkaka, sartu zan Auñemendin zeruetako argitasuna, eta oraindio ez gara kristiñauok ain asko (70-71. or.).

Sinesmen erlijiosoa bihurtzen da istorioaren hasieratik bertatik gatazka-sortzaile *Auñemendiko Lorean*. Elementu gatazka-sortzaile honi frankotar eta euskaldunen arteko etsaigo luzea batzen zaio. Portunek, Ozinbeltz jauregiko Otxoa euskal agintariaren seme nagusiak, Adalbaldo frankotar dukeari egindako salaketak (“guzurtiak dirala prankotarrak eta guzurra euren siniztea”) laburbiltzen du auzi politiko eta erlijiosoa. Elementu gatazka-sortzaileen barrutia osatzeko maitasunak egingo du agerrera. Aberriak eta fedeak eragindako aurkakotasunari, Adalbaldo frankotar dukea Riktrudis Arnaldo euskal agintari ospetsuenaren alaba bakarrarekin ezkontzea gehituko zaio, Portun, Ozinbeltz jauregiko Otxoa euskal agintariaren seme nagusia, Riktrudisez maitemindurik zegoenean. Kristaua den euskal agintari baten alaba bakarra, frankotar duke kristau batekin ezkontzen da, “fede zarrekoa” den Portunen sentimenduak zaurituz.

Orain bai, orain gerra piztuko da. Riktrudis Adalbaldo frankotar dukearekin ezkontzean, “fede zarrekoa” zen Portunek gerrari ekiteko osagai guztiak zituen: bere sentimendu pertsonalen itxaropenen amaiera zekarren ezkontza traizioa zen. Eta Portunek auñemenditar eta frankotarren arteko gerra piztu zuen. Frankotarren erregek bakeak egitera bidaltzen duen Adalbaldo mandataria, Portunek eta Riktrudisen ahaideek erailgo dute. Erailketaren ondotik, ezkonduz gero Ostrabenton bizi zen Riktrudis Auñemendira joango da senarraren ehortz lekura. Han senarrari azken agurrak eta otoitzak esaten ziharduela Portun, senarraren hiltzailea, hurbilduko zaio. Zeruan maitatuko duela agintzen dio Riktrudisek. Portunek, Riktrudisen maitasuna eskuratu nahian jarraitzen duenez, zerura joatea nahi du. Riktrudisen esana entzun eta gutxira,

kristautu eta, herririk herri ibili zen Jesukristoren legea zabaltzen, gaztetako gaiztakeria guztiak aitortuz.

Portun da frankotarren aurkako azken gerra hau piztu duena. Gerrak euskal agintaririk ospetsuenaren mailara igotzen du, Gaixpar, Ubero euskal agintariaren semearen esanetan:

Portunen izenak beste Euskal-Erriko guztiak illunpetan daukaz, iauna. Ez da bera motel eta argibakoa: azkarra da, sendoa, zala, (...): atan bere, agintaririk egokiena legez ez deusagu inok begiratu emen, hainbeste gizon azkar, argi eta sendo dagozan lekuan; baiña egun batzuetatik onara Portun eta Portun baizen besterik ez da entzuten; berak igarri dabela, berak dakiala, (...) danoen artean geuk iaso dogu Portun goren-gorengo mailletaraño, eta Portun da gaur emengo gizon bakarra (144. or.).

Hona hemen, bada, Riktrudisek lortutako gesta: frankotarren aurkako azken gerra piztu eta gero euskal agintari ospetsuen bihurtu den Portun kristautzea. Auñemenditarren agintari gorena kristautu ostean, uste izatekoa da ez zuela luzaroan iraungo bertan “fede zarrak”. Auñemendi mendiak ziren Euskal Herrian jentiltasunaren azken gotorleku. Azken gotorleku horretako euskal agintaririk ospetsuena kristaututa, jentiltasuna azkenetara dator.

Riktrudis da gestaren egilea. Riktrudisek, Mendiola jauregiko Arnaldo euskal agintariaren alaba bakarrak, irabazi du Portun kristautasunerako. Kontalariak nahiz zenbait pertsonaiek aitortzen dutenez, izaera bereziduna da Riktrudis. Giza izaeraren mugak gaindituz aurkezten dute. Hala, Portunek ezagutu zuen ueña gogoratzean, dioenez:

Orduantxe ezagutu neban lenengo Riktrudis. Amesetan iruditu geinkean gauzarik zoragarrienaren antzera agertu zan. Axe da sarrakioa sartu eustana! BILDURTU egin nintzan, beste munduetako gauza bat ikusi baneu legez. Bai, edertasunak badaroa beragaz gizonak konkortuteko indar ezkutukoren bat. Ni beinik-bein Riktrudisen iazkera, esakera, ibillera eta begiradeak konkortuta itxi nituan. Dana zan ain... ain... ez dakit nik zelán esan bere, barru-barruan gozotasun andi bat emoten ebana (38. or.).

Amando apezpikuarentzat Riktrudis “euskal mendietako aingerua” (51. or.) da eta Adalbaldorentzat, berriz, “Euskal-Erriko aingerua” (130. or.). Naturaz gaindiko izakia datorkie burura Riktrudis ezaugarritzatzean. Edo natu-

ran bertan gelditzen direnean, lorea da burura datorkiena: Auñemendiko Lorea<sup>16</sup>, nahiz Euskal Herriko Lorea<sup>17</sup> deituko dute.

Izaki zoragarri honek Auñemendi mendiak ditu sorleku. Auñemendi mendiok ez dira Euskal Herriko edozein mendi, bertako bizilagun batzuen arabera behintzat: euskal mendia da antonomasiar. Ahots desberdinetan entzuten den izendapena da. Riktrudisek berak darabil, “Nun sartuko gara geu euskal mendira goazenean?” (135. or.) galdetzen dioenean senar Adalbaldori, edo Pedro Mari morroiak Arnaldo ugazaba defendatzen duenean, Portunen aurrean:

Zuk esan dozu, guzurrea dala iakinda, Arnaldo nire ugazaba, euskaldunik onena, garbiena, leiñargiena eta zintzoena, Euskal Mendiagaitik geien egin dabengizona, erri-saltzaille bat dala (97. or.).

Riktrudisen ezteietara joandako euskaldunen ahotsean ere entzun daiteke:

-Ez dago esku txarretan Erria! Baiña ez da bera bakarrik agintari: Euskal mendian badira beste batzuk Portun baiño andiagoak, eta ikusiko dogu (133. or.).

Euskal Mendia, Auñemendi, kristautasunerako irabazi ezinean dabiltzanean elizgizonak, bertako Loreak, bertako aingeruak, mendi horretan jai eta bizi den Euskal Herriko agintari nagusia, kristau fededun bihurtuko du. Horrela, Euskal Herriko Loreak, Euskal Herriko Aingeruak, jentiltasunaren azken gotorlekua suntsitze bidean jartzea lortzen du.

#### 4. Auñemendi: abilezia erakusteko leku

Aitorren garaian, nahiz Altabizkarreko gertaeren garaian, nahiz Auñemendiko Lorearen egunetan, ez zen mugarririk Pirinioetako euskaldunen artean: mugari kontzeptuari aipamenean bat egiten bazaio euskaldunak beste herrialderen batekoengandik bereizteko da. *Auñemendiko Lorean*, kasu, mu-

<sup>16</sup> “Gizon bat baeukan barriz Auñemendiko Loreak, gizona baiño gehiago aingerua zirudiana” (146. or.).

<sup>17</sup> “Zergaitik, zergaitik. Euskal-Erriko Lorea eroan deuskuelako” (139. or.).

“Neu ioan naz Euskal-Erriko Loreagaz Ostrabentora” (139. or.).

“Euskal-Erriko Lorea erbestekoak ezagutu daienean —uste izan dot nik— ain bizitza on eta usain gozozkoa erabilliko dau eze, maitetuko dabe prankotarrak eta obeto begiratuko deutse Lore orren mendiari” (140. or.).

garriek auiñemenditarrak eta frankotarrak bereizten dituzte. Geroago, ordea, mugarriek egiten dute agerrera Pirinioetako euskaldunen artean: Piarres Adamek Pello mutikoari kontatzen dion 3. istorioan, “1555an, Erremundegibehere Sarako hauzapezak egin zuen abilezia” izenburutzat daramanean, bada mugarririk euskaldunen artean.

Jean Baptiste Elizanbururen *Piarres Adame* (1888) eleberri laburrak Piarres Adame pertsonaiak, Olhetako jaietarako joan-etorrian, Pello mutikoaren gozamenerako kontatutako istorioak eta asmatutako ateraldiak biltzen ditu. Istorio horietako bat, Sarako liburuetan jasota dago: 1555ean herriko auzapezak erakutsi zuen abileziaren berri ematen du.

Haserre samar zebiltzan saratar eta zugarramurdiarrak 1555eko udazkenean:

Denbora hartan, Pello, Saratarrak eta Zugarramurdiarrak gerlan zituan, bazuek bertzen kontra. Huna zertako:

Sarako artalde bat mugarriz alde hartara alatzten zenean, Zugarramurdiko artzainek, zeinen nagusiak komentuko fraideak baitziren, frantses artalde hori, inguruan harturik, erematan ziteian, aitzinean, fraiden komentura. Orduan, fraiden eskuetaraz geroztik, adio artaldea Saratarrentzat!

Sarako artzainek ere, (...) artalde bat mugaz alde huntara alatzten, edo xoilki mugarat hurbiltzen, hek ere inguratzen ziteian berehala artalde hori eta ekartzen Sarako plazara. Gero han, lehenago hamar ardi edo zikiro galdu zituenak, atzematen zitian hogoi, eta gehiago ere ba, ahal bazuen<sup>18</sup>.

Bi herrietako artzainen arteko harremanen nolakotasuna modu orokorrean aurkeztu ondoren, bi herrien arteko mugarrian behin batean gertaturikoa kontatzera igarotzen da Piarres Adame: Piarres, Hartxuriako artzainaren berrehun ardik Zugarramurdiko fraileen komentuan amaitu zutenean gertaturikoa azaltzera, hain zuzen ere. Piarres artzainak nagusi zuen murde Erremundegibehere, Sarako auzapeza, jakinaren gainean jarri orduko, honek ardiok berreskuratzeko trikimailua asmatuko du.

Gesta epikoak kontatzen dituzten legendak eta eleberri historikoa argitaratzen diren garai bertsuan ipuinak edo anekdotak ere agerrera egiten du *Piarres Adamerekin*. Legendetako edo eleberri historikoko pertsonaiek abian jarritako ekintzek edo erakutsitako jarrerak giza komunitatearentzat —eta ez norbere

<sup>18</sup> Elissamburu, Jean Baptiste, 1982, *Piarres Adame*, Elkar, Donostia, 45. or.

buruarentzat— onuraren bat lortzea bilatzen dute. Aitorrek Euskal Herria sortu zuen; Altabizkarreko gerrariak euskaldunen askatasuna gordetzea zuten jomuga. Eleberri historikoari dagokionez, Riktrudisek sinbolizatuko du kristautasunaren garaipena Euskal Herrian. Aitorren, Altabizkarreko gerrarien edo Riktrudisen jardunak edo jarrerak ez zuten xede norberarentzat irabaziren bat eskuratzea: gainontzeko herritar guztien onerako izango den zerbait lortzen ahalegindu dira. Besterik da *Piarres Adameko* 3. istorioak dakarrena: pertsonaia nagusiak abian jarritako ekintzetatik erdietsitakoak pertsonaia nagusia bera du hartzaile. Bere berrehun ardiak berreskuratzeko asmatzen du trikimailua Sarako alkateak: saratarrek ez dute inolako irabazirik izango alkateak bururutako ekintzetatik, ez bada harrotasun-puntu bat, beren herritar batek zugarramurdiarrak baino trebeagoa dela frogatu duelako.

Beraz, XIX. mendeko euskal narratibak heroia-modu desberdinak kokatu zituen Auñemendi mendietan: giza komunitatea gogoan dihardutenen ondoan, norbere buruari begira soil-soilik ari direnak bizi izan dira bertan.

Erremundegibeherek, Sarako auzapezak, bete-betea asmatuko du bururatu zaion trikimailuarekin; izan ere, berrehun ardiak itzultzeaz gainera, beste ehun emango dizkiote Zugarramurdiko fraileek. Saratarren irabazia Zugarramurdiko fraileek baino abilagoa den herkide bat dutela atzematera mugatzen da. Gesta epikoen kokaleku ziren Pirinioetan, gesta epikoa desagertu da: Zugarramurdiko fraileek edo zenbait saratarrek beren hazienda handitzea dute jomuga Pirinioetan dagoen mugarriak eragindako egoera dela eta.

Honenbestez, gesta epikotik egunoroko bizitzako gestara iragatea dakar Piarres Adamek Pello mutikoari kontatutako istorioak: mugarriak bereizten dituen bi herritako herritarren arteko liskar txikiak; xextrak eta lehia. Nor izan garaile, nork nori sartu ziria: horra hor auziaren gakoa. Jakina, Jean Baptiste Elizanburu saratarrek Piarres Adame saratarren ahotan jarritako istorioan Sarako alkateak atera behar zuen garaile saratar izatearen harrotasunak kalterik jasan ez zezan: zugarramurdiarrak baino trebeagoak, abilagoak dira saratarrek.

Ziria sartzeko asmatutako trikimailuaren gorabehera gune duen istorio batean, mugarria, azken batez, aitzakia hutsa da. Alegia, beste edozein motibo bila zezakeen kontalariak bi herritako herritarren arteko lehian, batak bestea garaitu zezan. Hauta zitzakeen motiboen artean, zinez, mugarria aukeratu du eta honen izaera banatzailea funtsezko ezaugarri bihurtu trikimailuaren garapenerako. Alabaina, Elizanbururen kontaketa honetan mugarria osagaia pika-rokeriarako eta pikarokerian trebetasuna erakusteko bitarteko besterik ez da.

Mugarri honen izaera banatzailea ez dator kontaketara, dena delako gizakia nazio bateko kide egiten duten lotura historiko eta afektuzkoetan eraginaz. Errealitate politiko banatzailea probetxuren bat ateratzeko erabiltzen da.

Beste maila bateko urraketen adierazle dira legendetan eta eleberrri historikoan aipatzen diren mugarriak. Euskal lurraldearen mugarriak zaintzeak guda bat beste baten ondotik ekarri du *Auñemendiko Loreara*: 638. urtearen inguruan ehun urte daramatzate auñemenditarrek beheko frankotarrekin gudan, frankotarron menpe bizi nahi ez dutelako. Euskal lurrak kanpotarren inbasioetatik gordetzea neke eta sufrimendu ugariaren sortzaile izan dela erakusten dute legendek. Ez da horrelako mugarria Elizanburuk itxuratzen duena: abilezia erakusteko aitzakia hutsa da mugarria, honen izaera banatzailea ziria sartzeko bitarteko huts bihurtzen delako.

*Piarres Adameko* Piarres Adame saratarrak kontatzen dituen istorioen entzule bihurtu duen Pellori bere burua aurkezten dioenean, modu honetan egiten du: “Sarako herrian, ez dela bat nik baino irri gehiago egiten duenik” (11. or.). Pertsonaia zirtolaria da Piarres Adame. Berarentzat mugarria pasadizo irrigarri bat kontatzeko eta bere herkideak aldamenen dauzkaten zugarramurdiarrak baino abilagoak direla azaltzeko osagaia besterik ez da.

Mugarriak dakartza, halaber, Jean Baptiste Daskonagerrek *Atheka-gaitzeko oihartzunak* (1870) eleberrian. Abilezia erakusteko leku izaten jarraitzen dute Pirinioek, baina, orain garaipena derrigorrezkoagoa da, porrotak ondorio larriak izan ditzakeelako. Alderdi honetatik, Daskonagerren eleberrian itxuratutako mugarria urrutiratu egiten da *Piarres Adamekotik*; izan ere, iseka desagertu da: larritasunak ordezkatu du iseka.

Norgehiagokak jarraitzen du mugan. Orain, ordea, ez da jada bi herritako alkateen artean edo herritarren artean, kontrabandista eta muga-zaintzaileen artean baino. Ja abileziaz jokatzea ez da harrotasun-puntu baten jabe egiteko, ondoko herrikoak baino iaioagoak izatea frogatzeko, baizik eta legearen urraketak ekar dezakeen zigorra ekiditeko.

Pirinioetan bazen mugarriarik XVI. mendean ere. Haatik, lasai asko igarozten zuten ardiek. Orain, berriz, muga-zaintzaileek egin dute agerrera eta, zaintzaile hauek saihestuz, muga igarotzen dutenak kontrabandistak dira.

Franzisko Lopez Alen-ek “Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat” legenda-ramandako gertaera-leku berbera hautatzen du Jean Baptiste Daskonagerrek *Atheka-gaitzeko oihartzunak* eleberrirako. Beste oroitzapen batzuk ekartzeko, ordea:

Ateka-Gaitzak badu bere mendetako omen ederra, guziek dakitena. Hosinen gainerat makurtua den arroka horren erditik Errolanek ideki zuen beretzat bide bat; haren itzal handia, gora hegaldatua, dabila orai ere gure mendien gainean. Baina Ateka-Gaitzak baditu bere oroitzapen berriak; hoiere oroitarazteko hartu dut hemen xedea<sup>19</sup>.

Pirinioak pertsonaia bereziekin jendeztatzen jarraitzen du euskal narrati- bak: Aitor, “Karlo-Manen jendea” garaitu zutenak, Arnaldo euskal agintaria eta honen alaba Riktrudis, Sarako alkate abila... eta, orain, Ganix kontraban- dista. Daskonagerrenen ustez,

Maiz, itsas hegietan sortzen dire marinel suharrak, oihanetan ihiztari za- luak, mendi mortukaretan eta herri-mugen auzoan kontrabandista atrebituak (20. or.).

Kontrabandista horietako bat da Ganix. Eskuzabala, trebea, ausarta eta azkarra den kontrabandista honek mugalari legez egindako joan-etorri ba- tzuen berri ematen du *Atheka-gaitzeko oihartzunak* eleberriak, bereziki eta za- balenik Beirako Printzesa muga igarotzera lagundu zueneko.

Daskonagerrek dakarren muga ez da Elizanburuk dakarrena bezalako; larriagoa da. Bietan dago abilezia-norgehiagoka, baina, batak, saratarren na- gusitasuna erakustearekin batera irria sorraraztea jomuga zuen bitartean, bes- teak, bizitza arriskutan jartzeari darion estutasuna agertzen du. Mugaren alde batetik bestera egindako joan-etorri horietan gertaturiko zenbait pasadizoren kontaketa- ren bidez adierazten dira Ganixen lantegiak dituen arriskuak: behin batean, lauhun kontrabandistaren buru ziholarik, norbaitek salatu egin zi- tuen eta muga-zaintzaileak zain zeuzkaten. Batzuen eta besteen arteko bo- rrokan zauritu egin zuten. Zauriez gain, epaiketa jasan zuen, nahiz eta epaike- taren ondoren libre utzi zuten. Beste behin, mandoetan karlistentzako dirua zeramala, ijitoak etorri zitzaizkion gainera... Dena den, zabalenik kontak- ten pasadizoa karlisten buru zen Karlosen emazte Beirako printzesaren muga- lari egin zueneko da eta, ondorioz, hor azaleratzen du modurik agerikoenean larritasuna.

Muga-zaintzaileek zaintzen duten pasabidea ez da igarotzen erraza. “Gar- da” batek dioenez,

---

<sup>19</sup> Daskonagerre, J. B., 1970, *Atheka-gaitzeko oihartzunak*, Sociedad Guipuzcoana de Edi- ciones y Publicaciones, San Sebastián, 20. or.

Ez duk hunat etorriko printzesarik; hegalak behar litzkeek mendi hau behera jausteko! (116. or.).

Zer bidaia nekagarria printzesarentzat! mendi zorrotzen patarrerri gora behe-  
ra, ondo gabeko erreketan, sasieri trebes (116. or.).

Jeneralak bidalia du Makaiara Burrumba kapitaina soldadu-konpainiarekin batera Beirako printzesa eta Ganix atxilotzeko aginduarekin. Ganix, —Burrumba kapitainak baino abilezia handiagoa erakutsiz—, garaile aterako da. Soldaduak Ganixen etxera heldu aurretik, alde egina da printzesarekin; gero, muga-zaintzaileak saihesten jarraituko dute, harik eta Nive ibaia igaro, aitzinean zuten mendia igo eta ibili deserosoen ondotik heltzen diren arte “xirripa baten bazterrerat; hura zen Frantzia eta Espainia bereisten dituen muga” (117. or.). “Huna Espainia” (117. or.) esaten dioenean Ganixek printzesari amaituko da abentura.

xvi. mendean kokatzen zuen Elizanburuk Piarres Adamek kontatutako istorioa. Honela, xix. mendean bizi izan zen Elizanburuk lehen aldi urrun samarreko istorio bat berreskuratu zuen. Ez da beste horrenbeste gertatzen Daskonagerrek kontatutako istorioarekin, egileak berak ezagutu zuen pertsona baten ibileren berri ematen baitu<sup>20</sup>: Ganix kontrabandistaren ibileren berri, hain zuzen ere. Oparotasunean bizi izandako Ganix kontrabandista ospetsua, txirotasunera igaro ostean, Daskonagerrek honen ibileren berri emateko erabakia hartzen du, laguntzeko asmoarekin. Beraz, Elizanburuk ez bezala, lehen aldi hurbilean kokatzen ditu gertaerak.

Elizanburuk dakarren lehen aldi urrun samarretik Daskonagerrek dakarren lehen aldi hurbilera mugako gorabeheretan aldaketak nabaritzen diren arren, arriskuak lasaitasuna eta larritasunak iseka ordezkatu dutelako, istorioaren muina leku berean kokatu dute: mugaren pasabideetan. Alegia, ez dute azpimarratzen hainbeste mugarria bera, nola muga horretan dauden pasabideak. Mugan pasabideak daudelako igarotzen dira ardiak eta, ondorioz, eragiten saratar eta zugarramurdiarren arteko liskarrak. Mugan pasabideak daudelako dabil Ganix muga horretan alde batera eta bestera.

---

<sup>20</sup> Bozas-Urrutiak J. Vinson jarraituz dioenez, behin batez Daskonagerrek, Baionako notarioak, ikusi zuen Ganix bere bulegoan sartzen “zaharturik, ezindurik, miseria gorritan, bere ondasunetarik azken hondarrak baituran ipinteko asmotan zetorrela. ‘Merezi gabeko’ zorigaitz hartaz urrikaldua, Daskonagerre jaunari bururatu zitzaion Ganixen kondaira liburu batean idatzi ta gero kontrabandixta zahararren probetxuan saltzea” (268. or.).



## 5. Ondorioak

XIX. mendeko euskal narratibak Mendebaldeko Pirinioetara begiratu zue-  
nean bertan gertaturiko istorio batzuen berri emateko, denbora-ardatz zabala  
jarri zuen ikusmiran: legendazko iraganetik iragan historiko hurbilenera zi-  
hoan tartea, hain juxtu. Gauzak honela, XIX. mendeko narratiba Mendebalde-  
ko Pirinioetan bizi izandako aldaketa batzuk islatzera heltzen da.

XIX. mendearen azken herenean kontatutako istorioek erakusten dute,  
aditzera ematen dituzten gertaeren denbora gertaerok argitaratzen dituzten  
garaira hurbildu ahala, apalduz doazela azaldutako gestak. Aro Modernoa bai-  
no lehenagokoak ziren garaietan kokatu zituztenean jazoerak gesta epikoa  
bakarrik atzeman zuten Auñemendi mendietan: pertsonaiek abian jarritako  
ekintzek giza komunitatearentzat onuraren bat eskuratzea zuten jomuga, al-  
diz, Aro Modernoan edo geroagoko denboretan kokatu zituztenean jazoerok,  
pertsonek abian jarritako ekintzek gizabanako soilaren onura bilatzen dute.

Aro Modernoa baino aurreragoko garaietan kokatzen diren istorioetako  
pertsonek edo jarrerak komunitatearentzat ongiren bat lortzea dute  
jomuga: dela aske bizi izanaz jarraitzea, dela sinesmen erlijioso “benetakora”  
erakartzea...

Aro Modernoan egiten du agerrera mugarrak. Mugarridun Pirinioak aur-  
kezten dituztenean, muga horretako pasabideek eragindako gorabeheretara  
biltzen dute arreta gunea. Gorabehera horietan beti dago lehia eta lehia horretan  
garaile ateratzea da helburua; izan ere, muga pasabideak daudenez, pa-  
sabide horiek zeharkatzeak arauak urratzen ditu. Garaipenaz gozatzen duena,  
lehenik eta behin, lehia irabazi duen gizabanakoa da, Sarako auzapeza izan  
zein Ganix kontrabandista izan. Lehia irabazi duena mandatari denean, man-  
datu emaileak ere goza dezake garaipenaz, baina bigarren maila batean. Edo-  
zein modutan, ez da bilatzen guztien ongia, baizik eta on partikularra. Muga-  
rri horretan Sarako auzapezak bere hazienda zaintzea du xede eta ahal badu  
handitzea; Ganix kontrabandistak mugak jarritako debekuaren gainetik igaro-  
tzea. Debekuaren gainetik igarotzea, lehenbizi kontrabandistaren mesedetan  
da, baita mandaturen bat betetzen ari denean ere, nahiz eta mandatu emaileak  
ere irabazirik izango duen eskatutakoa eskuratzean. Honela bada, inoiz ez da  
gaintitzen on partikularren bilaketa mugarridun Pirinioetan.

Denboraren hariak pertsonaiek egindako gesten maila apaltzea badakar  
ere, XIX. mendeko kontalariak aldaketarik gabe gordeko dute Pirinioetan  
kokatu zituzten gertaerak protagonizatzeke pertsonaia berezietz baliatzea. Per-

tsonaia nagusi guztiak legendazkoak edo historikoak dira eta hauetan ez dago ohikotasunaren gurpilaren jira-biran bizi den pertsonaia nagusi arruntik. Batek, Euskal Herria sortu zuen, beste batek, “Aurrera mutillak” deiadarra eginaz, aurre egin zion “Karlo-Manen jendeari”, hurrengoak kristautasunaren garaipena ekarri zuen Auñemendira eta, azkenik, abilezia apartaren jabe direnek beren trebezia erakusten dute.

Azken finean, badirudi, gertaera-lekuaren mailan leudekeen pertsonaiak hautatzera jotzen dutela: pertsonaia bereziak, apartak, leku berezi baterako. Izan ere, lekua bera ere, berezia da edo berezi ikusten dute pertsonaiek. Hala, Ararateko mendietatik zetorren Aitorrek Pirinioak aukeratu zituen bizileku eta hilobi; *Auñemendiko Loreako* zenbait pertsonaiek “Euskal Mendia” deitzen dute. “Euskal mendi” hori da, hain zuzen ere, kanpotik datozkion berrikuntzei oztoporik handiena jartzen diena: “fede zarretik” kristau federa igaro ezinik dabilta bertako bizilagunak, gainontzeko euskaldunak igaro eta gero. Pirinioak leku berezi moduan ikustea ez da lehen aldi urrun batean —dela legendazkoa, dela historikoa— bizi izan ziren pertsonaietara mugatzen, lehen aldi hurbilekoek ere ikuspegi bera baitute. Daskonagerrek honako hitz hauek jartzen ditu Burrumba kapitainaren ahotan:

La princesse de Beira est chez Ganich. Dans quelques heures l’un et l’autre seront en notre pouvoir.

Soldats: vous ne faillirez pas à votre devoir; songez que du haut de ces Pyrénées quarante siècles vous contemplant! (74. or.).

Burrumba kapitainarentzat ez daude edonon, gizaldiak igarotzen ikusi dituen leku batean baino eta horregatik ez litzateke egokia huts egitea. XIX. mendeko kontalariek ere, Auñemendira begiratu zutenean, beren egitekoan hutsik egiten ez zuten pertsonaia nagusiak aurkitu zituzten.